



EUSKARAREN GAINEKO DISKURTSO PARTEKATURAKO ZORU KOMUNAREN OINARRIEN AURKEZPENA DONOSTIAN

Patxi Baztarrikak -Hizkuntza Politikarako sailburuorde eta Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 batzorde bereziaren presidentek- eta Iñaki Martínez de Lunak -soziolinguista, Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 batzorde bereziaren eta EGOD egitasmoaren (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen egitasmoa) zuzendariak-, euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarrien aurkezpena egin dute gaur goizean Donostian.

Gaur goizean bi lan aurkeztu dira:

- Alde batetik, Patxi Baztarrikak, EGOD egitasmoak definitzen dituen diskurtso ezberdinen arteko intersekzioa litekeenaren eduki zehatzak zehaztu ditu. Izan ere, EGOD egitasmoaren barruan, beste zenbait konturen artean, ikerketa ugari egin dira. Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak, ikerketa hauei esker lortutako informazioa landuz, zoru komuna definitu du.
- Bestalde, Iñaki Martínez de Lunak, EGOD-en azken txostenaren emaitza nagusien laburpenaren berri eman du. HPS-ek honela eskatuta, Iñaki Martínez de Lunak EGOD egitasmoa zuzendu zuen.

Aurrekariak:

Zoru komun hori definitu baino lehenago, egitasmoak eginiko ibilbidea azaldu da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak legealdirako lan-programa aurkeztu zuen legealdi hasieran. Lan-programa horretako konpromiso eta eginkizunen artean nabarmendu zenetariko bat izan zen, “euskal gizartean euskarari buruz dauden diskurtsoen lanketa egitea, eta diskurtso ezberdinen arteko kontrastea eta eztabaida bultzatzea, ahalik eta parte hartze zabalarenekin”.

Euskararen Aholku Batzordeak, Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak hala proposatuta, 2013-2014 aldirako lan programa onartu zuen eta programa horretako eginkizunetariko bat, hain zuzen ere, honelaxe definituta onartu zen: **“euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea”**. Eginkizun hori garatzearen ardura Euskara 21 Batzorde-atalaren esku jarri zen.

Eginkizun hori aurrera eramateko ‘Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoaren lanketa’ (EGOD) izeneko egitasmoa jarri zen martxan. Egitasmo horren zuzendaria Euskara 21 Batzorde-atalaren zuzendaria bera da, gaur prentsaurrekoan egon den Iñaki Martínez de Luna. **EGOD egitasmoak euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea du helburu.**

Horrela izendatu dira bost multzo edo diskurtsoak: *Errespetuarena, Balio pragmatikoarena, Sustatzailea, Aldarrikatzailea eta Mesfidatia.*



Zoru Komuna:

EGOD egitasmoaren barruan egindako ikerketa horietako informazioa landuz, Hizkuntza Politikarako sailburordetzak diskurtso ezberdinen arteko intersekzioa izan litekeenaren eduki zehatzak definitu ditu eta horiek dira gaur goizean Baztarrikak azaldu dituenak. Intersekzio hori izan daiteke, hain zuzen ere, **euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarria**.

Aurretiaz aipatu diren bost diskurtsoak zenbait esaldiz (33 esaldi, guztira) osatuta daude eta esaldi bakoitzak onarpen maila ezberdina du. Intersekzio edo zoru komun hori definitzeko, **esaldi hauetatik edota ikerketako bestelako galderetatik ateratako ideietatik %66,6tik gorako babesa dutenak hartu dira**. Beraz, esaldiak aukeratzeko, ezinbestez, bi hereneko babesa izan behar dute. Onartutakoak hogeita bat izan dira. **Beraz, lan honi esker, definituta geratzen dira gutxienez gizarteko bi herenek ontzat ematen dituzten ideiak**.

Gutxienez gizarteko bi herenek ontzat ematen dituzten ideiak:

Zk	Zentzua	Galderak eta esaldiak	Gutziz + nahikoa ados	Gutziz ados	Nahikoa ados
1		Hurrek ingelesa jakitearen garrantzia? [*]	96	72	24
2		Hurrek gaztelania jakitearen garrantzia? [*]	95	70	25
3		Hurrek euskara jakitearen garrantzia? [*]	93	73	20
4	Errespet.	Bakoitzak du eskubidea zein hizkuntza nahiago duen aukeratzeko, besteen aukera ere errespetatuz	93	70	23
5	Errespet.	Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da	93	75	18
6	Errespet.	Saltoki, enpresa eta administrazioan bezeroen nahia errespetatu beharko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko	90	63	27
7	Sustatza.	Euskara ez dakitenek ere euskararen normalizazioa babestu beharko lukete	87	62	25
8	Sustatza.	Zuretzat, zenbateko garrantzia du euskaldunek nahi duten lekuetan euskara erabiltzeko aukera izateak? [*]	87	58	29
9	Sustatza.	Guztion hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortzearen garrantzia [**]	86	66	20
10	Pragmat.	Gaur egun, euskaraz jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	86	52	34
11	Errespet.	Guztiok, euskaraz ez dakitenek ere, harro sentitu beharko genuke hemen, eta ez beste inon, euskara dugulako	84	57	27
12	Sustatza.	Garrantzitsua litzateke euskadiko biztanle gehienek euskara ikastea	83	51	32
13	Errespet.	Euskaldunek ulertu behar dute pertsona askok ezin dutela euskara ikasi	80	52	28
14	Pragmat.	Euskara jakiteak laguntzen du hemengo gizartean eta kulturari integratuago egotea	79	45	34
15	Pragmat.	Euskara gero eta beharrezkoagoa da lana eskuratzeko	76	39	37
16	Errespet.	Ahaleginak egin behar dira euskara eta gaztelania maila berean egon daitezen, ez bata bestearen gainetik	75	45	30
17	Aldarr.	Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea	75	39	36
18	Sustatza.	Erdaldunek, euskaraz ez ulertu arren, onartu behar dute euskaldunek beraien artean euskaraz egitea	71	49	22
19	Aldarr.	Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke	71	42	29
20		Orokorrean, nolakoa da euskararekiko duzun interesa? [*]	69	39	30
21	Aldarr.	Etorkizunean euskararen presentzia (erabilera) [***]	68	13	55

[*] Erantzun aukerak honakoak izan dira: Oso handia, Nahikoa handia, Erdipurdikoa, Nahikoa txikia, Ez dut batere interesik, Ed/ee.



[**] Erantzun aukerak honakoak dira: Garrantzi handia, Nahikoa garrantzi, Erdipurdikoa, garrantzi gutxi, garrantzirik ez, Ed/ee.

[***] Erantzun aukerak honakoak dira: Etorkizunean euskaraz bakarrik egitea nahi du; Bietan egitea nahi du, euskaraz orain baino gehiago; Bietan egitea nahi du, orain bezala; Bietan egitea nahi du, euskaraz orain baino gutxiago; Etorkizunean gaztelaniaz bakarrik egitea nahi du; Ed/ee.

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak azaldu du: “Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren konbikzioa honako hauxe da: euskara biziberritzeko prozesuan eraginkorrak izateko, gauza asko behar ditugu, jakina da hori (besteak beste, arau eta politika egokiak, plangintza egingarriak, bitartekoak, ezagutza zientifikoa edo lankidetzaren publiko-pribatua behar ditugu). Baina behar dugun horren guztiorren oinarri nagusiak, **bi zutabe dira**, eta hauek ezinbestekoak dira: bata, herritarren atxikimendua (gogoa, nahia), eta, bestea, **adostasun sozial eta politiko zabala**; askotarikoen arteko adostasun sozial eta politiko zabala, zabala kuantitatiboki, eta zabala kualitatiboki. Badakigu, noski, adostasuna ez dela nahikoa, baina hori bezain argi dakigu adostasuna ezinbestekoa dela aurrera egiteko”.

Eta gehitu du: “Ondo dakigunez, euskarak jauzi handia egin du EAEn azken hiru hamarkadotan. Jauzi hori egiteko nahitaezkoa izan da adostasun sozial eta politiko zabala. Adostasun horren babes eta legitimaziorik gabe ez genituen euskara biziberritzeko eraiki dugun corpus juridiko-normatiboa eraikiko eta hainbat arlotan askoren artean garatu ditugun politikak garatuko. Adostasun sozial eta politiko hori zaindu, eguneratu, elikatu eta indarberritu egin behar da. Etengabea da lan hori”.

Donostian, 2016ko otsailaren 4an